

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014 ikasturtea

IKASGELAN GAUZATZEN DIREN GATAZKAZ OHARTUZ

Egilea: Alazne Ormaza Sastre

Zuzendaria: Elena Herran Izagirre.

Leioan, 2014ko uztailaren 9an

© 2014, Alazne Ormaza

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA

EGILEAREN ONIRITZIA





AURKIBIDEA

Sarrera.....	4
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera	5
1.1. Jean Piaget	5
1.2. Lawrence Kohlberg	7
1.3. Constance Kamii	8
1.4. Egungo egoera	12
2. Esparru praktikoa	13
2.1. Helburuak.....	13
2.2. Metodologia.....	14
2.3. Erregistroa eta analisia.....	15
2.4. Emaitzak eta ondorioak	16
3. Lanaren mugak eta etorkizunari begira lantzeko aukerak	24
4. Erreferentzia bibliografikoak	25

ERANSKINAK

• ERANSKINA I, Lehenengo neurketaren asteroko taulak.....	26
• ERANSKINA II, Lehenengo neurketaren eguneko taulak.....	28
• ERANSKINA III, Lehenengo neurketaren gatazka sozialen analisi taula.....	30
○ Norenen artean eman dira gatazka sozialak.....	30
○ Nolakoak izan dira gatazka sozial hauek.....	31
• ERANSKINA IV, Bigarren neurketaren asteroko taulak.....	32
• ERANSKINA V, Bigarren neurketaren eguneko taulak.....	34
• ERANSKINA VI, Bigarren neurketaren gatazka sozialen analisi taula.....	36
○ Norenen artean eman dira gatazka sozialak.....	36
○ Nolakoak izan dira gatazka sozial hauek.....	37

IKASGELAN GAUZATZEN DIREN GATAZKAZ OHARTUZ

Bost urteko gela bateko gatazken hausnarketa.

Alazne Ormaza Sastre

UPV/EHU

Laburpena: Bost urteko gela batean burututako ikerketa lan honen bidez, gure inguruko eskoletan ohikoa den egoera aztertu nahi da. Hots, eskoletan ematen diren gatazka egoerak, hain zuzen ere. Gainera, argi izan behar dugu hauek ondo bideratzen ez badira biolentzia edota agresibitate egoerak bilakatu daitezkeela. Gatazka hauek bi eratan ulertu daitezke: alde batetik, umearen jokabide negatibo gisa; edota, gaiaren inguruko hausnarketa sakona eginez gero, umeak ingurunea ulertzeko eta horrekin interakzioak egiteko erabiltzen dituen ikasketa mekanismo gisa. Argi dago beraz, gatazka hauen izaera parametro ezberdinek osatzen dutela: irakaslearen papera, eskaintako baliabideak, umearen garapena, etab. Ikuspuntu honetatik lanean ikasgelan bizi izandako gatazken ezaugarrien frekuentzia erregistroa egin da. Gatazka hauen interpretazioak haur hezkuntzako irakasleei hobetu ulertzen eta honekin batera, hauek era positibo batean bideratzen lagundu ahal dizkie.

Gatazka soziala, gatazka kognitiboa, eskola, autonomia, egozentrismoa.

Resumen: Este trabajo de fin de grado puede considerarse de investigación, ya que tiene como objetivo analizar los conflictos en un aula de infantil de niños de cinco años. Esta situación, por otra parte tan común en las aulas de Educación Infantil, de no ser tratada correctamente, puede transformarse en situaciones de agresividad y/o violencia, dañando el ambiente escolar. Estos conflictos se pueden entender bien como simples conductas negativas o bien, si se hace una reflexión más profunda, como mecanismos de aprendizaje utilizados por el niño para comprender e interactuar con un entorno no demasiado favorable. En este caso se evidencia que la naturaleza de dichos conflictos se ve afectada por varios parámetros como el papel de la educadora, la organización, los materiales o medios ofrecidos, desarrollo del niño, etc. Desde este punto de vista se ha efectuado un registro de frecuencias de los conflictos habituales del aula y se han ordenado según sus características, mediante unas tablas creadas y adaptadas para tal

fin. Su interpretación puede ayudar a los profesionales de la infancia a una gestión de los conflictos más eficaz.

Conflicto social, conflicto cognitivo, escuela, autonomía, egocentrismo.

Abstract: This dissertation can be regarded as a research project in that its main purpose is to analyse the conflicts that may arise in a class with five-year-olds. The risk associated with these situations, which are, on the other hand, so common in preschool classrooms, is that they can turn into aggressiveness or violence, tinging the school atmosphere, if they are not treated properly. These conflicts can be interpreted either as plain negative behaviour or, on closer examination, as learning mechanisms employed by children in order to understand and interact with a not always favourable environment. In the latter case, it is made evident that the nature of such conflicts is affected by a number of parameters such as the role that educators play, the organization, the resources provided, the development of the child, etc. From this point of view, a record of the usual classroom conflicts and their frequency has been kept, and the entries have been ordered according to their characteristics by means of tables created and adapted to this end. Their interpretation may be of help to education professionals when it comes to the effective management of conflicts.

Social conflict, cognitive conflict, school, autonomy, self-centredness.

Sarrera

“Zure askatasuna nirea hasten den leku berean amaitzen da.” (John Stuart Mill)

Demagun munduan gatazka egoerak ez daudela. Demagun mundu guztiak daukan bizitza onartzen duela eta ez diola bere buruari galderik egiten, ez duela beste gizakiekin iritziak elkar-trukatzerik, oztopoen aurrean geldirik geratzen dela, non inork ez duen ametzik izaten ... Bai, horrelakoa izango litzateke mundua gatazkak egongo ez balira.

Gizakiaren nortasunaren ezinbesteko parte bat dira gatazkak. Hauek jaiotzen garen unetik, mundua ezagutzeko eta berrikusteko beharrezkoak diren pentsamendu eta egoera kontrajarrietan jartzen gaituzte. Hots, gatazka giza kondizioen barruan agertzen den errealitatea da. Kontzeptu hau argi izatea ezinbestekoa da umeak bizi izaten dituen estutasun egoerak ulertu ahal izateko eta, ondorioz, eskoletako irakasle gisa lan egiten dugunean, horiek ulertzeko eta bideratzen jakiteko. Hau da, presente izan behar dugu gatazkak ondo bideratuz gero, garapen pertsonalerako erreminta baliogarria direla. Horrexegatik, taldearen nortasunerako, kohesio, indibiduoaren ikasketa pertsonalerako, eta abarretarako oso tresna baliagarriak izan daitezke. Argi dago edozein taldeak, pertsonen arteko harremanak mantentzen dituenak, gatazkak dituela.

Hortaz, egoera hauek ezkorrak edota negatiboak bilakatu daitezke biolentziazko egoera batean bihurtzen direnean. Hau da, gatazkak modu eraikitzailean konpontzen ez direnean, indarkeria edo beste motatako biolentzia motetan bilakatu daitezke.

Alabaina gatazka hitzak esanahi ugari izan ditu historian zehar. Norbanako bakoitzak era batean edo bestean definitzen du bere ideiak edo bizitzaren aurrean duen jarreraren arabera. Hori dela eta, autore asko dira gatazka bere teorien barnean era batean edo bestean definitu dituztenak. Lan honetan historian zehar hezkuntzarako garrantzi handia izan duten hiru autoreen ikuspuntua azalduko da: *Jean Piaget*, *Lawrence Kohlberg*, eta Piageten ikaslea izan zen *Constance Kamiirena*.

Gaur egun ere, gatazkak presente daude eskoletan. Gainera irakaskuntzan lanean urteak daramatzaten irakasleen aburuz, jarrerarekin zer ikusia duten gatazken kopurua handitu egin da. Egoera hau, lehen ez bezala, haur hezkuntzako geletaraino luzatu egin da.

Orduan, zergatik gertatzen ari dira hauek? Asko izan daitezke honen arrazoiak. Alde batetik, baliteke egungo umeak, eskolatze goiztiarraren ondorioz, eskoletan gero eta biolentzia egoera gehiago pairatzea. Beste muturrean izan zitekeen gizarteko balioen aldaketa bat non irakasleak gizartean zeukan irudia eta maila soziala beste plano batera

jaitxi diren. Halere, batetik edo bestetik argi dagoena zera da: gure gizartea aldatzen dabil eta horrekin batera ikasleak ere.

Lan honetan bost urteko ikasgelan bateko behaketa egingo da. Lehenengo eta behin, egonaldiaren lehenengo astean egoeraren gaitetiko behaketa bat eginez. Horretan lortutako informazioarekin kontrol taula batzuk sortuko dira egonaldian zehar datuak bildu ahal izateko. Bi alditan banatuko da: alde batetik lehenengo aldia, egonaldiaren hasierako behaketa, otsaileko lehenengo bi asteetan egingo da; eta bestalde, bigarren behaketa aldia apirilaren azkeneko bi asteetan burutuko da. Azkenik, bi aldi hauetan lortutako datuak alderatuko dira eta horren inguruan ondorio batzuk aurkeztuko dira.

Guzti honekin egun gure geletan dauden gatazkak nolakoak diren eta zein funtzio duten aztertu nahi da. Hauek identifikatuz gero, errazagoa izango baitzaizkigu ulertzea eta aurre egitea.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera.

1.1. Jean Piaget:

Jean Piaget gizakiaren adimena nola sortzen, garatzen eta berregituratzen den inguruko ekarpenak egin zituen. Hots, autore honek ezagutzaren egituraketaren oinarritzat zuen norbanakoaren parte-hartze aktiboa. Hori dela eta bihurtu zen konstruktibismoaren aitzindarietako bat (Medrano, 2005; Pons & Roquet, 2005).

Jean Piagetentzat gatazkak norbanakoaren garapenarekin batera bere izaera eraikitzen doan heinean gauzatzen diren arazoaren ebazpena eta ikasketa prozesuak izango dira (Ruiz, 2006). Hau da, gatazkak lehen haurtzarotik heldutasuna lortu arte gizakiak igarotzen dituen etapa batetik bestera trantsizioa egiteko bidea beharrezkoak diren barneko "lehia" kognitiboak dira. Hauekin adimena eraikitzen joango da, hots, barne lotura kognitiboak eginez adimen-egiturak sortuko dira.

Hortaz, barneko egitura hauek inguruko estimuluei egokitzuz eraikitzen joango da adimena. Ondorioz, kasu batzuetan egokitzapen horretan, subjektuak eta inguruneak bat etorriko dira, kasu hauetan informazio berria alde aurreko ezagutza-eskemetan barneratuko da, honi *asimilazioa* deritza. Bestalde, subjektuak asimilatu ezin duen esperientzia bat bizi izaten duenean, informazio berria bere barne ezagutza-eskemekin gatazkan jartzen da. Kasu honetan bi mekanismo eman ahal dira. Lehen kasuan,

moldatzea deiturikoa, subjektuak ahalegin egiten du bere eskemak aldatzeko edo informazio berria ondo asimilatzea ahalbidetuko dioten beste eskema berriak eratuko ditu. Bigarren kasuan aldiz, *asimilazio deformatzailea* deiturikoan, hau da, aurretiazko ezagutza-egiturak egoera berriarekin guztiz aurka egiten dutenean, dauden egiturak aldatu eta berriak sortzean, desegokiak edo ez zuzenak diren ikasketak edo eraikuntzak sortuko dira. Laburbilduz, esperientzia ezin denean asimilatu, oreka galdu egiten da, kasu hauetan berregituratzeko joera duen moldatze-prozesua aktibatuko egingo da (Luque & Palacios, 1990; Pons & Roquet, 2005).

Etapa hauei Piaget estadioak izendatu die, horiek umearen adin tartean banaturik daude (adin tartea gutxi gorabeherakoak dira) eta bakoitzean adin horretan gauzatzen diren prozesuen arabera azalduko dira. Estadio hauek bata bestearen atzetik eraikitzen doaz; lehenengo estadioa, *sentitze-mugitzeko adimena* (0tik 2 urtera); bigarren estadioa, *adimen eragile-aurrekoa* (2tik 7 urtera); hirugarren estadioa, *adimen eragile konkretua* (7tik 12 urtera); laugarren estadioa, *adimen eragile formala* (12tik 16 urtera) eta hauek aldi berean azpi-estadioak dituzte. Beraz Piagetek estadio eta azpi-estadio hauetan definitzen dituen subjektuen adimenaren ezaugarrien arabera izango dira hauek dituzten gatazka kognitiboen xedea (Luque & Palacios, 1990; Pons & Roquet, 2005; Truchis, 2003).

Ikerketa honen xedea, beraz, adimen eragile-aurreko estadioan eta azpi-estadioan agertzen diren umearen ezaugarriaz ohartzea da kontutan hartu beharrekoak hauek bizi izaten dituzten barne gatazkak eta ondorioz, hauen erantzunak ulertzeko. Estadio honetan bi azpi-estadio agertzen dira, pentsamendu sinbolikoa eta kontzeptu-aurrekoa (2tik 4 urtera) eta intuiziozko pentsamendua. Hau guztia kontutan izanda eta ikerketa hau bost urteko umeen ikasgela batean zentratzen denez, estadio honen bigarren azpi-estadioaren barruan dauden umeek dituzten ezaugarrietan zentratu behar gara (Pons & Roquet, 2005; Truchis, 2003):

- Pentsamendu egozentrikoa izaten jarraituko du. Hau da, kanpoko mundua (objektiboa dena) eta bere barne mundua (subjektiboa dena) ez ditu bereizten. Ondorioz, umea bere perspektibatik ikusten du mundua eta ezin du besteen ikuspuntua ulertu, hori dela eta uneko ekintzetan zentratuko da. Hortaz estadio honetan deszentralizazio prozesua hasiko da.
- Bere arrazonamendua partikularretik orokortasunera igarotzen joango da errealitatearekin behin eta berriz topo egitean.

- Orokorrean, bigarren estadio honetako pentsamenduaren ezaugarriak-*egozentrismoa* (objektiboa eta subjektiboa diren horiek bereizteko ezgaitasuna), *zentratzea* (errealitatearen alderdi bat hartzen du kontutan), *sinkretismoa* (errealitatearen bi egoerak logikarik gabe nahastuko ditu), *juntaposizioa* (osotasun bat osatzen duten elementuak logikoki erlazionatzeko eta antolatze gaitasun eza), *itzulezintasuna* (ekintza bat atzetik-aurrera itzultzeko gaitasun eza) bereganatzen doa eta arrazonamendu logikorantz bideratzen joango da.

Laburbilduz, Piageten teoriak jarraituz gatazkak subjektu bakoitzaren garapenean dituen barneko lehia kognitiboak izango dira eta, beraz, subjektuaren adimen-egituraren estadioaren arabera aldatzen joango dira. Ondorioz, mundua gero eta hobeto ulertzen joango eta horren arabera erantzun egokiagoak izango ditu.

1.2. Lawrence Kohlberg:

Lawrence Kohlbergekin garapen moralaren teoria psikologikoa proposatu zuen. Lawrence teoria printzipio moral unibertsaleetatik abiatzen da. Hau da, gatazka egoera batean erabaki bat hartu behar denean, gatazka pertsonalez gain norbanakoaren kultura, posizio soziala, ideologia eta erlijio sinesmenak ezberdinak daudenez arauak era global batean ezin dira definitu kolektibo bakoitzak ezberdin interpretatuko dituelako. Beraz, gatazka egoera baten aurrean erabaki zuzena hartzeko aipatutako “kutsatzaile” guzti horiek alde batera utzi beharko liriteke gatazken konponketa argudioetan oinarritu ahal izateko (Kohlberg, 1978).

Pentsamendu moralak hiru maila ezberdin ditu eta aldi berean bakoitzaren barruan horiekin lotura dituzten bi estadio daude; *Maila aurrekonbentzionala* (1. estadioa, moralitasun heteronomoa eta 2. estadioa, harremanen moralitasuna), *maila konbentzionala* (3. estadioa, pertsonen arteko araudiaren moralitasuna eta 4. estadioa, gizarte sistemaren moralitasuna) eta *maila postkonbentzionala* (5. estadioa, giza eskubideen moralitasuna eta 6. estadioa, norbanakoak logika baten barruan hartutako erabakien moralitasuna) (Kohlberg, 1978; Medrano, 2005; Pons & Roquet, 2005).

Haur Hezkuntzako umeen garapen moral maila aurrekonbentzionalan kokatzen da. Adin honetako umeek arau sozialak ez dituzte ulertzen, hots, beraiantzat arau hauek beraietatik kanpo daudela uste dute. Horregatik burutuko den akzioa berehala izango dituen ondorioen onura edo zigorraren arabera baloratuko dute. Beraz, esan genezake

umeen moralitateak eraikitzen dituen baloreak ezberdinak direla helduok ditugunekin konparatuz. Hau da, umeek egiten dituzten epaiketak aztertuz gero, ohartuko gara erabiltzen dituzten mekanismoak kanpotik barneratutakoak ez direla, baizik eta bere mundu propioarekin lotura zuzena dutela (Kohlberg, 1978).

Autore honen arabera gatazkak norbanakoaren barruan sortzen diren dilema moralak dira. Dilema hauek beti bi balioen arteko gatazka aurkezten dute, eta hipotetikoak edo errealak izan daitezke (Medrano, 2005):

- **Dilema hipotetikoak:** Hauek arazo deskontestualizatuak planteatzen dituzte. Ondorioz, interesen arteko gatazka bat agertuko da. Eskolari begira, dilema hipotetiko hauek zenbait abantaila dituzte. Alde batetik, dilema balioen arteko gatazka dela ulertu dezaten lagungarria da. Bestetik, eta bereziki, arazo batean aurrean interbentzio egin aurretik baita ondoren ere, ikuspuntu metodologikotik, arrazoiketa moralaren diagnostiko bat egitea ahalbidetzen du.

Honen arazoa, eta gehien bat haur-hezkuntzara begira, umeek dilema hipotetiko hauetan planteatzen diren egoerak beraiekiko loturarik gabekoak izaten dira. Beraz, kontutan izanda haur-hezkuntzako umeek egozentrismoaren fasean murgilduta daudela besteak beste, oso zaila egingo zaie bere mundutik kanpo dauden dilema hipotetiko hauek ulertzea. Beraz, etapa honetan pentsarazteko ariketak egin nahi izanez gero, komenigarriago izango da Kohlberg-ek planteatzen dituen bigarren dilema mota (dilema errealak) aintzat hartzea (Medrano, 2005; De la Caba, 1993).

- **Dilema errealak:** Dilema mota hauek, norbanakoak egituratzen eta berarentzat esanguratsuak diren bi balioen arteko gatazkak dira.

Beraz, dilema mota hauekin umeek esanguratsua den testuinguruaren barruan planteatzen diren balioen gatazkak ezagutzea eta horietaz hausnartzea ahalbidetzen dute (Kohlberg, 1978; Medrano, 2005; Pons & Roquet, 2005). Hots, umearen munduarekin lotura zuzena duten dilemak dira, eta horietaz baliatuz bere pentsamendua garatzeko ahalbidetuko dituzten egoerak planteatzea erraztuko dute.

1.3. Constance Kamii:

Jean Piaget autorearen ikaslea izan zen Constance Kamii ere gatazken inguruan lan egin zuen. Honen lanaren muina umeentzat autonomiaren garapena duen garrantziaz zentratu da. Hots, norbera bere kabuz eta pentsamendu kritiko batekin erabakiak hartzeko gai izatea bai eremu moralean baita adimenean ere. Hori dela eta, autoreak bi

autonomia mota bereizten ditu; autonomia morala eta adimenaren autonomia (Kamii, 1982).

1.3.1 Autonomia morala:

Autonomiak norbere buruaren bideratzailea izatea esan nahi du. Kontrako puntuan, aldiz, heteronomia dugu; hau da, beste norbaitengatik menperatua izatea. Autonomia moralari dagokionez umeen eta helduen kasuan ez da berdina, ume txikiek heteronomiaren morala adieraziko dute, hots, ezarrita dauden arauen gainean eraikiko dute zer dagoen gaizki eta zer ondo.

Hortaz, argi izan behar dugu pertsona autonomo batentzat gezurrak txarrak direla nahiz eta honetan harrapatu ez. Alde honetatik, ume txikiek heteronomiaren moralitatea adierazten dute askotan. Hau da, bere iritziz “behi bat bezain handia zen txakur bat ikusi nuen” esatea “Irakasleak nota onak jarri dizkit” adieraztea baino txarragoa da. Hori horrela da zeren umearen buruan lehenengo baieztapena “*behi bat bezain handia zen txakur bat ikusi nuen*” ezinezkoa da, txakurrak inoiz ez direlako behiak bezain altuak; aldiz, bigarrenaren kasuan “*Irakasleak nota onak jarri dizkit*” heldu bateri esaterakoan sinetsiko duela ziur daude. Honetan umeek oraindik egozentrismoaren barruan murgilduta daudela ikusten da eta horren ondorioz, moralitate ikuspegia, hau da, ondo eta txarto dagoenaren bereizpena, ezarrita dauden arauen edo autoritatea duen pertsonen nahien arabera izaten da. Hots, horien kontra joatea txarto egongo da eta horiek errespetatzea, ondo. Aitzitik, moralitate autonomoa dutenentzat norberak ikuspuntu ezberdinak planteatzen erabakitzen du zer dagoen ondo eta zer gaizki. Alabaina, argi izan behar dugu ume guztiek heteronomoak jaiotzen direla eta batzuk autonomoak bihurtzen direla helduak egiten direnean (Kamii, 1982).

Zoritzarrez gaurko errealitatean heldu askok bere kabuz erabakiak hartzeko autonomiarik ez dute txiki-txikitatik pentsamendu kritiko hori deuseztatu zaielako. Ondorioz, egun ezarrita dauden edota boterea dutenen aginpenen menpe bizi izaten dira, hau da, autonomia moral gutxi izaten dute.

Piageten iritziz helduek umei zehapenak ezartzen dizkietenean duten heteronomia indartzen dute. Aldiz, gatazka baten aurrean edo erabaki bat hartzerako orduan beraiekin ikuspegi ezberdinak elkartrukutzen direnean bere autonomia garatzen da. Zehapen hauek positiboak (sariak) edo negatiboak (zigorrak) izan daitezke. Demagun ume batek gezur bat esaten duela, egoera honen aurrean helduak bi gauza egin ahal ditu, edo zigorra ezarri “*Postrerik gabe geratuko zara*” edo, zigorra ezarri beharrean, umeari

begiratu eta esan “*Ezin dut sinetsi esaten duzuna zeren ...*” eta argudiatu zergatik uste duen komentatu duena egia ez dela. Hots, umeak ezin duzula sinetsi pairatuz gero, egoera horri buelta emateko nahia edo beharrezana sentituko du eta sinesteko era pentsatzen hasiko da. Azkeneko adibidean bezala hezituta izan den umeak denborarekin ulertuko du hobe dela egia esatea gezur bat esatea baino (Kamii, 1982). Beraz, zigorrak hiru ondorio izan ahal ditu:

1. **Arriskuen kalkulua:** Umeak egin duena errepikatuko du baina harrapatua izaten saihestuz.
2. **Konformismoa:** Manakorrak diren ume batzuk konformista bihurtzen dira zigorraren aurrean, horrek segurtasuna ematen baitie.
3. **Matxinada:** Ume batzuek denbora batean zehar portaera ezin hobea izaten dute. Alabaina, une batean egoera horretaz nekatu egiten dira eta ordura arte agindu dieten helduen aurka matxinatu egiten dira jarrera guztiz aldatuz. Jarrera hauek autonomiarekin nahasteko arriskua dago, zerikusirik ez dutenean. Hots, pertsona bat matxinatzen denean konformismoaren aurka egiten du baina, horrek ez du esan nahi pertsona bat autonomoa denik. Autonomia lortzeko egoeraren aurrean erabakiak hartzeko gaitasuna izatea esan nahi du; beraz, pertsona autonomo batek ez du zertan inkonformista izan behar.

Ikusi den bezala zigorrak umearen heteronomia bultzatzen du. Bestalde, sariak ere efektu bera izaten dute. Azken finean sariengatik ondo portatzen den umea ez ditu gauzak egingo txarto eta ondo dagoenaren arteko iritzia duelako baizik eta saria lortzeko. Autonomiaren muina umeak bere kabuz erabakiak hartzen ikastea izango da. Hots, autonomia izateak ez du esan nahi umeak nahi duena egiteko askatasun osoa duenik; aitzitik, egoera aztertzeko gaitasuna izatea eta inplikatuak dauden pertsona guztientzat hoberena den erabakia hartzen jakingo duela.

Hortaz, Piagetek argi zeukan ezinezkoa zela umearen bizitzan zehapenik ez izatea, haur txikia ikasketa prozesu batean baitago. Horregatik Piagetek elkarrekikotasunagatik sortutako zehapenen eta zigorraren artean bereizketa egiten zuen. Gezur bat esateagatik ume bat parkera jolastera joan gabe ustea zigorraren adibidea izango litzateke. Bestalde, elkarrekikotasunagatiko zehapenen kasuan zuzenean salatu nahi dugun ekintzarekin eta helduaren ikuspuntuarekin lotura dauka; hau da, umea ikuspuntu ezberdinak ikusten ikasketaren bidez jarrera-arauak ezartzen saiatuko da. Piaget bost mota aztertu zituen eta Kamii seigarren bat gehitu zion (Piaget, 1971; Kamii, 1982):

1. **Denboraldi baterako baztertzea:** Haurrari jarrera txar bat izaten duenean, adibidez, gelako korruan molestatzeko badabil, bi aukera ematen zaizkio: “*edo gelditzen zara eta ondo portatzen zara edo atera zaitez korrutik eta lasaitzen zarenean bueltatuko zara*”. Era honetan, nahiz eta biak umearen gustukoak ez izan, hautatzeko aukera ematen zaio; hau da, ez zaio behartzen momentuan gelditzeko edo isilik egoteko, baizik eta aukera ematen zaio taldetik nahi duen denboraldian aldentzeko eta lasaitzen denean taldera bueltatzea.
2. **Ekintzak dituen ondorioz unean antzematea:** Hau da, umeari ikustaraztea egiten ari denak dituen ondorioak. Adibidez, gezur bat esaten badigu ikustaraztea ez diogula sinesten eta horren argudioak ematea.
3. **Txarto erabili duen objektua kentzea:** Erabilpen desegokia ematen dion heinean utzi behar du, baina berreskuratzeko aukera izango du erabilpen egokia eginez gero.
4. **Umeari egin duen gauza bera egitea:** Kamiiren aburuz teknika hau kontu handiz erabili behar da, beti ere ume batek beste ume batek sentitzen duena ikustarazteko eta neuri kontrolatu batean.
5. **Lehengoratzeta:** Adibidez, ume batek piezaz beteriko kutxa bat lurrera jausten bazaio esan ahal diogu “*Nahi duzu batzen laguntzea?*” eta denboraren poderioz, umeari “*Zer egin behar duzu?*” esanez, jakingo du batu behar duela.
6. **Gure ezespina eta atsekabea adieraztea:** Umeari ikustaraztea egin duena ez zaigula batere gustatu eta berarekin desengainua hartu dugula pairatzea.

Laburbilduz, Kamii-en iritziz umeei balore moralak ez dituzte ingurunetik barneratzen edo hartzen, baizik eta barnetik eratzen dituzte bere ingurunearekin elkar eraginez. Beraz, autonomia morala horrela definituko litzateke “*Besteak tratatzea gu tratatuak izatea gustatuko litzaike bezala*”.

1.3.2. Adimenaren autonomia:

Adimenaren alderdian, norbere kabuz pentsatzeko gaitasuna izatea izango da autonomia eta, aldiz, norbaitengatik gobernatua izatea heteronomia izango da. Adimentsuki autonomia den indibiduo bat bere kabuz pentsatzeko gai izango da, hots, iritzi propioa eta eratua izango du eta batzuetan hedatuak dauden iritzien aurka egingo du. Bestalde, adimenaren aldetik heteronomia den pertsonak hedatuak dauden iritziak, arauak, ... sinetsiko ditu nahiz eta hauek zentzurik gabekoak izan. Honetan ere, Piageten aburuz, umeei barnetik ezagutzak eraikiko ditu bere ingurunearekin elkar eraginez (Kamii, 1982).

Aipatu ditudan autonomia mota hauetan irakaslearen zeregina, bi eremuetan umeak autonomia garatu dezan, ahalbidetzen dituzten egoerak eskaintzea izango da. Hau da, umea bere buruarekiko konfiantza izaten laguntzea, pentsamendu kritikoa garatzen laguntzea, galderak formulatzeko eta planteatzeko ekimena izatea ... izango dira irakasleak buruan izan behar dituen helburuak. Lan honetan, nahiz eta datu bilketan adimenarekin loturiko gatazkak ere agertu, gatazka sozialetan zentratuko da. Beraz, autonomia moralarekin zer ikusia duten egoerak izango dira gehien aztertuko direnak.

1.4. Egungo egoera:

Ikusi dugunez, gatazken inguruan definizio asko daude eta aldi berean izen ezberdinekin definitzen ditu autore bakoitzak.

Hortaz, aipatutako guztiak kontutan izanda, gatazka gizabanakoaren garapen sozial eta kognitiborentzat ezinbestekoak diren erremintak dira. Alde batetik, *gatazka sozialak* gure gizartean gauzatzen diren gizabanakoen arteko interakzioak ulertzeko eta hauek, egoeraren arabera, erregulatzeko edo aldatzeko balio dute. Bestetik, *gatazka kognitiboak* giza ikasketa prozesuan ezinbestekoak diren pentsamenduaren eraikitzaileak dira; hau da, gatazka kognitiboek ingurunetik datozkigun informazio berria barneratzen, edukitzen den informazioarekin bateratzen edo eraldatzen laguntzen dute.

Laburbilduz, bi gatazka mota hauek gure nortasuna eta identitatea eraikitzeko ezinbestekoak dira. Hauen jatorria kanpotik zein barrutik dator ingurunearen eta gizabanakoaren arteko elkartruke batekin. Hauekin gizakion artean sortutako mundua eraldatzen eta moldatzen dugu.

Azken finean, gatazkak dira benetan bizia ematen digutena, beraien ezean sistemak ezarritako korrontearekin aurrera joaten diren makinak baino ez ginateke izango. Gakoa zera da: nola bideratu eta nola egin, beharrezkoak diren gatazka egoera hauek egoera negatibo bihurtu ez daitezen.

2.Esparru praktikoa.

2.1 . Helburuak.

Aurretik esan bezala gatazkak ez dira egoera negatibo gisa ikusi behar, are gehiago, umearen garapenerako ezin bestekotzat jo behar ditugu. Alde honetatik, eratura dago lana, hots, honen helburu nagusia eskoletan ematen diren gatazken analisi bat egitean datza. Egungo eskoletan egoera gatazkatsu asko egonda ere, arreta deitzen duena zera da: badira behin eta berriz errepikatzen diren gatazken patroiak. Hots, eremu ezberdinetan ematen diren egoera hauek ezaugarri propioak izaten dituzte. Adibidez, bi ikasleen artean sortzen diren gatazka gehienak espazio konkretu bat bereganatzeko izaten dira. Hori dela eta, lan honetan eremu horietan gauzatzen diren gatazken ezaugarriak aztertzea eta horien maiztasunaz jabetzea lortu nahi da.

Hau lortzeko horiek gertatzen diren uneoro apuntatuko dira, geroko azterketa egin ahal izateko eta lortutako datuen emaitzez ondorioak ateratzeko. Horretarako 21 ume dituen bost urteko gela bat hartu da, lagin gisa.

Aurreko helburu orokorrarekin batera, beste helburu zehatz batzuk lortu nahi dira, batik bat:

- *Gatazken maiztasunaz jabetzea.* Hots, ikustea gatazka mota bakoitza zein portzentajeaz ematen diren eta zein uneetan ugariak diren.
- *Denbora zeharkako jabetzea.* Hau da, ikustea denboran zehar zein bilakaera izan dituzten ikustea.
- *Irakaslearen esku hartzea.* Ikustea, irakaslearen papera nolakoa hauen aurrean eta aztertzea zein eragina daukan.
- *Gizabanakoen artean ematen diren interakzioak aztertzea.* Hots, ikustea zein kolektiboen artean ematen diren gatazkak eta hauek zein ezaugarri dituzten (ikasle bat-ikasle bat, ikasle bat -ikasle bi edo gehiago, ikasle bat-irakasle, ikasle bi edo gehiago-ikasle bi edo gehiago, ikasle bi edo gehiago-irakaslea, irakaslea-irakaslea).
- *Gatazka kognitiboetaz eta gatazka sozialetaz jabetzea.* Noiz, non eta zein portzentajeaz gauzatzen diren mota bakoitzeko gatazkak eta elkarren arteko konparaketa.
- *Gatazka sozialen ezaugarriak ikustea.* Aipatutakoen artean gauzatzen diren gatazken izaeraren analisi bat egitea.

2.2. Metodologia

Lan honen izaera ikerketa lan batena da. Hots, hasieran burututako ikasgelaren behaketaren ondorioz, gatazken presentzia altua zela ondorioztatu zitekeen. Hori dela eta, gradu amaierako lan hau horien ikerketan zentratzea erabaki izan nuen. Zergatik? Dakigunez irakasle gisa lortu beharreko helbururik inportanteena umeen ongizatea eta zorientasuna da. Beraz, prozesu horren barruan gauzatzen diren gatazken eragileak eta umeen garapenean duten eragina eta funtzioa aztertzea ezin bestekoa iruditu zitzaidan.

Ikuspegi honetatik planteatu egin da lana. Hots, gatazkak ez dira zapuztu behar diren arazo bat bezala aztertuko, baizik eta umearen garapenean beharrezkoak diren une garrantzitsu gisa.

Horretarako, datuen bilketa egiteko, aztertu izan den egoera zehatzerako sortutako taula batzuk erabiliko dira hiru multzoetan banatzen direlarik. Taula horiek espezifikoki lan honetarako sortu izan dira egoeraren aurre behaketan bildutako informazioan oinarrituz.

Prozedurari dagokionez, *lehenengo taula multzoa* astean zehar dauden gatazken zenbaketa egiteko izango da. Honetan, bakoitza noiz eta non gauzatu den ikusiko da eta bai gatazka sozialak baita kognitiboak ere agertuko dira (I eta IV eranskinetan).

Bigarren multzoa, aldiz, egun bakoitzean eremu bakoitzean gertatzen diren gatazkak zein motatakoak diren ikusteko erabiliko da. Hau da, astean zehar sortu diren gatazkak sozialak ala kognitiboak diren aztertuko da. Eremu guztietan suertatutako batura egiteko goiko puntuak adierazitako *asteko taula orokorraren* formatu bera erabiliko da, bat gatazka kognitiboentzako eta beste bat gatazka sozialentzako (II eta V eranskinetan).

Azkenik, gatazka sozialen azterketa bat egingo da. *Hirugarren azterketa* hau *bi azpi multzoetan banatuko* da. Alde batetik, oraingo honetan gatazka sozialetan zentratuz, gertatutakoak noren artean izan diren ikusteko egingo da (III eta VI eranskinetan lehenengo azpiatala). Bestalde, behin jakinda noren artean izan diren gatazka sozialak, horien izaera ikusteko taula sortu da (III eta VI eranskinetan bigarren azpiatala).

Hiru multzoz osaturiko taula hauek bi denboralditan banaturiko lau astetan erabili dira. Aldi bakoitza, beraz, bi astez osaturik daude. Bakoitzeko datuak biltzeko egunero goian azaldutako taulak erabili ohi dira. Hots, aldi bakoitzeko datuak bateratzeko bi asteetako datuak formatu bereko taula bakar batean bildu egin dira.


Lehenengo aldia, praktika aldiko bigarren eta hirugarren astean izan da (2014-02-10/2014-02-21). Esanda dagoenez, lehenengo astea egoeraren behaketa egiteko erabili

da. Bigarren aldia berriz, aste santuko aurreko bi asteetan egin da (2014-04-07/04-2014-18). Printzipioz, praktika aldiko azkeneko bi astetan egingo zen bigarren aldia, hortaz ezinezkoa izan da; alde batetik, maiatzeko zubia zegoelako; eta bestetik, azkeneko astean eskolan ekintza bereziak zeudelako.


Amaitzeko esan beharra dago nahiz eta gatazken izaera eta hauen ezaugarriak era kuantitatibo batean neurtzea batere erraza ez izan benetan emankorra suertatu zaidala. Giza harremanek milaka aldagai izaten dituzte eta beraz, nahiz eta elkar lotura duten ezaugarri batzuk izan, gatazka bakoitzak bere izaera propioa dauka. Hori dela eta, ikerketan zehar, hasieran eraturako tauletan moldaketak egin dira gatazken egoeren ezaugarrietara egokitzeko asmoz.

2.3. Erregistroa eta analisisia.


Sortutako eta egokitutako erregistro taulak aipatutako bi neurketetan betetzen joan ahala, atal bakoitzeko emaitza orokorrak hauek izan dira:




1. Grafikoa. asteko taula orokorretan lortutako datuen arteko konparaketa.



2.Grafikoa.Eguneko taulak. Leku bakoitzean gertatutako gatazka kognitiboen konparaketa.



3.Grafikoa. Eguneko taulak.Leku bakoitzean gertatutako gatazka sozialen konparaketa.



4.Grafikoa.Gatazka sozialen sailkapena. Norenen artean eman dira.

Gatazka sozialen izaeraren taulen konplexutasuna dela eta erregistroa egiteko grafiko formatua ez da erabili, beraz atal honetako datu taulak III. eta VI. eranskinetan aurkitu daitezke.

2.4. Emaitzak eta ondorioak.

Behin datu guztiak bildu eta ordenatu ostean argi eta garbi ikus ditzakegu zenbait kontu. Horiek ordenaturik aurkezteko, taulak osatzen dituzten hiru multzoetan lortutako emaitzak banan-banan azalduko dira eta bakoitzetik ateratako ondorioak ere. Horren ostean, lortutako emaitza eta ondorio orokorrak adieraziko dira.

Horrez gain zera esan behar da, bi neurketetan lortutako datuak asko direnez, hauen informazio zehatz guztia eranskinetan aurki daiteke (lehenengo neurketarenak I, II, III, eranskinetan; bigarren neurketarenak IV, V, VI eranskinetan). Adibide gisa, azpian agertzen den taulan (1.taulan) parentesien artean agertzen diren zenbakiak bi neurketen artean, kopuruaren aldetik, izan den desberdintasuna adierazten du (eranskinak, IV, V, VI,).

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	GUZTIRA
Goizeko sarrera	1(+1)	1	0	0	0	2(+1)
Arratsaldeko sarrera	2(+1)	1	1(+1)	0(-1)	2(+1)	6(+2)
GUZTIRA	3(+2)	2	1(+1)	0(-1)	2(+1)	

1. taula. emaitzen konparaketaren adibidea.

Asteroko tauletan lortutako emaitzak eta ondorioak:

- 1. Emaitza:** Guztira 559 gatazka egon dira. Hauen artea, 192 kognitiboak eta 367 sozialak. Asteko egunari dagokionez *astelehenetan (128)* eta *ostiraletan (132)* gatazka gehien gertatu diren egunak izan dira. Astelehenetik ostiralera progresiboki jaisten doaz; aldiz, ostiralean hauen kopuruaren igoera nabarmena da (128-111-98-90-132).
- 1. Ondorioa:** Astean zehar dauden gorabeherak umeen gogoei dagokie. Astelehen eta ostiralen tartean portaera ezberdintzearen arrazoiaren artean, astelehenean eskolara egokitzea izan daiteke. Bestalde, astea aurrera doan heinean neke pilaketa kontuan hartu beharko litzateke. Azkenik, ostiralean gatazken maiztasuna igotzearen arrazoiak aipatutako nekea zein asteburuaren hurbiltzea izan daiteke.
- 2. Emaitza:** Lekuari dagokionez *txokoak (156)* eta *korrua (154)* dira gatazka gehien sortzen diren eremuak. Hala ere, *bestelako ikasgaietan (121)* ere hauen kopurua altua da. Txokoen kasuan asteazkenetan (43) da gatazka maiztasun handiena ematen den eguna. Gatazka izaerari dagokionez matematika (51) eta hizkuntza (45) txokoak dira gehienetan gauzatzen diren eremuak. Korruaren kasuan asteleheneko patio ostekoan da non gatazka gehien ematen diren momentua (17). Azkenik, bestelako ikasgaien artean, musika (27) eta ingelesa (37) dira gatazken portzentaje altuena dutenak.
- 2. Ondorioa:** Txokoen kasuan, asteazkenetan maiztasun handien egotearen arrazoia, egun horretan beste ikasgairik ez egoteagatik izan daiteke. Gatazka izaerari dagokionez matematika eta hizkuntza txokoak dira gehienetan gauzatzen diren eremuak. Alde batetik, horietan zuzenduagoak diren jarduerak lantzen direlako eta bestetik umeentzat esfortzu kognitibo altuagoa eskatzen dieten nozioak lantzen direlako. Korruaren kasuan bi arrazoi aipatu daitezke: alde batetik, umeek korruaren arauak bete behar dituztelako (eserita egon, hitz egiten dagoenari entzun, ondokoarekin ez hitz egin, txandak errespetatu, ...); eta bestetik, burutzen diren ariketa kognitiboak besteen aurrean egiten direlako. Horretan taldearen presioak

umeen artean gatazkak sortzea eragiten du. Azkenik, musikan eta ingelesa ikasgaiak, hizkuntza eta matematikarekin gertatzen den bezala gidatuenak dira, gainera esfortzu kognitibo altua egin behar dute horietan lantzen diren nozioak ikasteko.

Atal honetako ondorioak laburtuz esango nuke, astean zehar gatazken kopurua nolako bilakaera duten ikusita, garrantzitsua izango litzatekeela eskolako ordutegia birplanteatzea eta umeen (zein irakasleen) energien arabera berreraikitzea. Gainera, argi dago umeei erronka handien sortarazten dizkieten ikasgaiak hizkuntzekin zer ikusia dutenak direla. Hori dela eta, esan bezala, eta bi aspektu hauek aintzat izanda, interesgarria izango litzateke umeentzat neketsuenak diren ikasgaiak eta ariketak aste erdian lantzea edota horien metodologia aldatzea eta egokitzen joatea astean zehar.

Eguneko tauletan lortutako emaitzak eta ondorioak:

1. **Emaitzak:** Ereku guztietan gatazka sozialak gatazka kognitiboak baino ugariagoak dira. Hots, bi neurketetan gatazka sozialen kopurua (367) gatazka kognitiboen kopurua (192) baino altuago izan da.
1. **Ondorioak:** Datu hauen zergatia umeak igarotzen dauden etapagatik izan daiteke. Hots, dakigunez adin honetako umeak harreman sozialak eraikitzeke sarean bete-betean murgilduta badaude. Gainera, egozentrismoaren azkeneko fasean egongo lirateke, hau da, harreman sozialen egiturak sortzen eta ulertzen dituzten bitartean egozentrismotik ateratzen doaz pixkanaka. Zoritzarrez askotan eskoletan lankidetzeta baino lehiakortasuna jorratzen da, ondorioz haurrei egozentrismotik irtetea zailagoa bilakatzen zaie. Alabaina, esan bezala, oraindik ere honen barruan daude eta horregatik, prozesuan orain arte baino gatazka sozial gehiago izango dituzte.
2. **Emaitzak:** *Gatazka kognitiboen kasuan:* txokoetan (71), korruan (55) eta bestelako ikasgaietan (51) izan da gehien egon diren eremuak. Gatazka kognitiboen kopurua nahiko konstante mantendu da astean zehar, halere astelehenean igoera txiki bat nabaritzen da (44-38-37-37-36).
2. **Ondorioak:** Datuak horrela izan daitezke, aurretik esan bezala, horietan eskatzen delako ekimen kognitibo gehien. Bestalde, emaitzetan ikus daitekeenez, horien kopurua bi neurketetan antzekoa mantendu da. Honen arrazoiak goian azaldutakoarekin lotura eduki dezake. Hots, gatazka sozialekin ez bezala, umeek dituzten gatazka kognitiboak adinarekin bat datoz. Horrek ez du esan nahi adin

honetako umeek gatazka kognitibo gutxi dituztenik baizik eta aurreko etapekin konparatuz, kopuruaren aldetik, antzekoak direla.

3. **Emaitzak:** *Gatazka sozialen kasuan:* korruan (99), txokoetan (85), patioan (72) eta bestelako ikasgaietan (70) izan dira ugarien. Nabaritzekoak dira patioan sortutako gatazka sozialak, kognitiboak ez bezala (12), hauen kopurua altua baita. Gatazka sozialen kopurua astean zehar progresiboki jaisten doa ostirala arte non igoera nabari den (81-74-61-54-97).
3. **Ondorioak:** Datu hauen zergatia ere argi egon daiteke, alde batetik korruan eta txokoetan beste umeekin espazio berean egoten behartuta daudelako (txokoetako taldeak irakasleak erabakitzen baititu). Dena den, aipatzekoa da noizbehinka irakasleak txoko libreak egiten dituela eta une hauetan umeen artean sortzen diren gatazka sozialen kopurua jaitsi egiten da. Pentsa daiteke, eremu horietan gatazka sozial egotearen arrazoi zati bat metodologiaren arazoa dela. Bestalde, patioan dauden gatazken kasuan, beste uneetan egoten ez diren umeekin elkartzen direlako izan daiteke. Hau horrela da, gela bereko umeen artean arau propioak era natural batez ezarrita daudelako eta ondorioz, beste klasekoak diren umeekin elkartzen direnean, interesen arteko eta lehiakortasun liskarrak sortzen dira. Gainera, ostiraletan gatazken igoera egotea egun horretan baloiak patioan debekaturik egoteagatik izan daiteke. Hots, eskolan ikusita normalean futbolera baino ez dela jolasten ostiraletan “baloirik gabeko eguna” izatea erabaki zen. Horren ondorioz, futbolera jolasten duten umeek egun horretan beste ekintzetan aritzen dira eta astean zehar harremana izaten ez duten umeekin jolasten dute.

Gatazka sozialak izandako izaeraren emaitzak:

- Noren artean gauzatu dira:
1. **Emaitzak:** Gatazka sozial gehienak ikasle biren artean eman dira (113); hala ere, ikasle baten eta ikasle multzo baten arteko gatazken kopurua altua izan da (80). Bestaldean umeen aurrean irakasleen arteko liskarrik ez dira egon. Gainera, ikasle bien arteko gatazkek zein ikasle baten eta ikasle multzo baten arteko gatazka gehienak txokoetan (65) eta patioan (46) sortu dira. Irakasle eta ikasle bat edo gehiagoren arteko liskarrak korruan (58) izan dira.
 1. **Ondorioak:** Datu hauen zergatiaren muina zera izan daiteke: umeak sozializazio prozesu batean daudenez elkarren arteko gatazkek sortzea beharrezkoa izan daiteke.

Gainera, normalean eskoletan ezarrita dagoen hezkuntza sistema, zorrotza eta presazkoa izaten da eta ondorioz, umeak estresatzen dira elkarren arteko gatazken kopurua igotzen. Horiek, bi ikasleen artean edota ikasle bat ikasle talde batekin izatearen arrazoien oinarria sozializazio prozesu horretan egon daiteke. Aipatu den bezala, adin honetako umeak taldean murgildu nahi direnez eta besteen iritziak kontutan izaten hasten direnez taldean integratzeko edota beste ume batekin harreman bat sortzeko gatazkak sortu ahal dira. Bestaldean, umeen aurrean irakasleen arteko liskarrik ez dira egon. Alabaina, tentsioak nabariak ziren eta batzuetan elkarren arteko agindu kontrajarriek umeenganako segurtasun eza eragiten zuten.

- Hauen izaera:

1. **Emaitzak:** *Gatazka moten artean:* gatazka berbala (286) izan da ugarien.
1. **Ondorioak:** Nahiz eta batzuetan gatazka fisikoak egon normalean umeen arteko gatazka gehienak hizkuntzaren bidez izan dira. Alde honetatik ere, nabaria izan da umeen heldutasun maila; hala ere, baziren ume batzuk oraindik ere egoera asko jotzen, bultzatzen ... konpontzen zituztenak. Alabaina, gehienak ez jotzearen araua bete-betean betetzen zuten. Haien artean zituzten gatazka berbal asko bortitzak ziren, irainaz beteta eta besteari mina egiteko intentzioz. Horrek nahiz eta begi bistan txartzat hartu, umearen gaineko heldutasun maila ere adieraz dezake. Hots, bestearen baitan jartzen da, ikusten du zerk egiten dion mina eta horretaz baliatzen da iraintzeko. Era honetako jarrerak murrizteko enpatia lantzen diren ariketak egitea komenigarria izango litzateke.
2. **Emaitzak:** *Gatazkaren eragileak:* bi ikasleen artean (49) zein bi ikasle multzoen (34) artean sortutako liskar gehienak espazio baten kontrola izateagatik izan dira: ikasle bat ikasle multzo batekin egon direnen kasuetan (33) objektu batengatik sortu dira. Azkenik, irakasleak parte hartu duen guztietan (115) jarreragatik izan dira.
2. **Ondorioak:** Bi ikasleen artean zein bi ikasle multzoen artean sortutako liskarren datuek normalean generoarekin zer ikusia izan dute; hau da, nesken eta mutilen arteko gatazkak izan dira. Ikertu izan dudana gelan bi generoen arteko aldea nabaria zen eta, ondorioz espazio bera nahi zutenean gatazkak sortzen ziren. Gauza bera gertatzen zen objektuekin ikasle bat ikasle multzo batekin egon direnen kasuetan. Era honetako jarrerak bi arrazoiengatik izan daitezke: alde batetik, esan bezala, adin honekin bere irudia harreman sozialen bidez, gizartean kokatzen ikasten ari

direlako; eta bestetik, baliteke, aurrekoarekin zuzenean elkarturik egon daitekeen arrazoia, gizarteratze prozesuan gizarte berak ezarrita dituen genero rolak umeek bere jarretan integratzea.

3. **Emaitzak:** *Parte-hartzaileak:* gatazka ikasle biren artean izan denean, gehienetan neskek izan dira parte-hartzaileak (58). Bestalde, ikasle bat ikasle bi edo gehiago (33) edota ikasle multzo bien artean (23) izan denean, nesken eta mutilen artean sortu dira gatazkak. Horrez gain, ikasle baten edo gehiagoren eta irakaslearen artean liskarrak egon direnean, nahiko parekatuta egon dira hauen kopurua. Nesken kasuan 28 gatazka izan dira eta mutilen kasuan 29. Are gehiago, aldi baten eta bestearen arteko aldea ikusiz gero konturatuko gara batean eta bestean aldaketa txikiak egon direla.
3. **Ondorioak:** Datu hauek ere sozializazio prozesuagatik izan daitezke; hots, umeek talde baten partaideak izan nahi izanez gero, liderraren onarpena behar zuten.
4. **Emaitzak:** *Gatazkaren ebazpenaren parte-hartzaileak:* irakasleak bere kabuz interbenitzen du, logikoa denez, bera gatazkaren eragileen artean kokatzen denean (116). Bestalde ikasle biren arteko gatazka denean, neurketa batean eta bestea konparatuz aldaketa egon da. Lehenengoan, bigarreanean ez bezala, bere kabuz konpontzen zuten umeen kopurua (21) altuagoa zen irakaslearengana jotzen zutena baino (19). Bigarreanean, aldiz, kontrako joera dago: gehiago dira irakaslearengana joaten direnak (27), bere kabuz konpontzen dutenak baino (20). Bestalde gatazkak bi taldeen artean sortzen direnean, irakaslearengana joatea da erabiltzen duten konponbiderik arruntena (29). Azkenik, ikasle baten eta ikasle multzo baten arteko gatazka denean, bere kabuz konpontzea da ohikoena (36).
4. **Ondorioak:** Ikasle bien arteko gatazken datuetan egon den aldaketa umeek gizartean ezarrita dauden hierarkiak ulertzen hasten direlako izan daiteke. Hots, baliteke haurrak pentsatzea gatazka batean irakaslearengana joanez gero horrek besteei errieta egingo diela. Arrazoi beragatik izan daiteke, gatazkak bi taldeen artean sortzen direnean, irakaslearengana joatea izatea erabiltzen duten konponbiderik arruntena. Azkenik, ikasle baten eta ikasle multzo baten arteko gatazka denean, bere kabuz konpontzea da ohikoena. Era honetako gatazka sortzen direnean, baliteke, talde bateko partaideak izatearen nahiagatik izatea. Ondorioz, hori lortzeko, autoritatearengana jotzea (kasu honetan irakaslearengana) “txarto ikusita” egon daiteke.

- 5. Emaitzak:** *Gatazkan erabili den hizkuntza:* irakaslea gatazkan parte-hartze zuzena izan duenean euskara izan da gehien erabili den hizkuntza (99). Aldiz, umeen artean (edozein barianteetan) gauzatu direnean kasu gehienetan gaztelera ebatzi egin dira (124). Gainera, aipatzekoa da ikasle bi multzoen artean, lehenengo neurketan ohikoena gaztelera zein euskaraz aritzea zela (13); hortaz, bigarrenen ikusten den bezala, nahiz eta antzekoa izan, gaztelera da gehien erabiltzen dutena (13).
- 5. Ondorioak:** Orokorrean ikusi izan dena, irakasleak parte-hartzeen duen gatazkak aparte, euskararen erabilpen txikia edo eza izaten da. Horren arrazoia hizkuntzarekin duten harremana izan daiteke. Ume gehien kasuan ama hizkuntza gaztelera da eta euskararekin izan duten kontaktu bakarra formala izan da. Arrazoi horregatik baliteke haurrentzako zaila izatea euskaraz eztabaidatzea, haserretzea ... Gainera, bitxia iruditu zaidan beste egoera euskaldun zaharren kasua izan da. Hauetariko gehienak gatazketan ere gaztelera aritzen ziren. Honen arrazoia aurrekoetan bezala, talderen parte izatearekin zerikusia izan ditzake. Hots, euskaldun zaharrak ziren haurrekin aritzen zirenean euskaraz egiten zuten; aldiz, taldean zeudenean edota gaztelera ama hizkuntza zuten umeekin aritzen zirenean gaztelera erabiltzen zuten gehienetan.
- 6. Emaitzak:** *Ikasleen harremana taldearen arabera:* kasu guztietan gatazkak klase berekoen artean izan dira ugarien.
- 6. Ondorioak:** Hau logikoa dirudi jakinda ordu gehienak klaseko lankideekin aritzen direla eta, beraz, harreman gehienak hauen artean ematen direla.
- 7. Emaitzak:** *Gatazkaren amaiera:* gatazka gehienak ez dira zigor baten bidez konpontzen (zigorrek amaitzen direnak, 92). Hauetariko batzuetan umeren batek amaitzen du negarrez (60). Hortaz, lehenengo neurketa bigarren neurketarekin konparatuz nabarmentzekoa da, bi hauek eta gehien bat zigorren kasuan, igoera nabaria izan dela (zigorra, 37-55; negarra, 23-37).
- 7. Ondorioak:** Nahiz eta sarritan ez erabili, batzuetan zigorra izan da gatazken ebazpena. Gainera, aipatzekoa da ohikoa zela umeren batek negarrez amaitzen zuenean zigor bat egotea ere. Honen arrazoia zigorra bakarrik gatazka gogorren ebazpenean erabili nahi izatea izan daiteke. Adibidez, bi umek elkarri jotzen bazioten edota objekturen bat nahita apurtzen bazuten. Gainera normalean umeek jarrera txar bat izaten zutenean bazekiten zigorra izango zela horren ondorioa.

Horrez gain, bi neurketak era global batean aztertuz gero, emaitzen arabera aspektu batzuk agerian geratzen dira. Alde batetik, gatazken kopuru orokorra batetik bestera, nahiz eta asko ez izan, igo egin da (271-288). Hortaz, zehatz-mehatz aztertuz gero, hau nabariagoa izan da gatazken sozialen kasuan (177-190). Hots, gatazka kognitiboen kopurua batetik bestera ia-ia mantendu da, bakarrik 4 puntuko igoera izan du (94-98). Alabaina, gatazka sozialen kasuan, igoera nabariagoa izan da 13 puntukoa, hain zuzen ere.

Bestalde, goian aipatutako salbuespenak aparte, gatazka sozialen izaera nahiko antzekoa izan da bi neurketetan, bai eman direnen artean baita hauek izan dituzten ezaugarrietan ere.

Aipatutako guztia laburbilduz ondorioztatuko nuke, ikerketa honen bidez argi ikusi dela umeen arteko gatazkek gehienak erabilera soziala dutela. Hots, norbanakoaren izaeraren eraikitzaileak direla eta hauekin gizarteratze prozesua ematen dela.

Umeek gatazkei ezker, bere burua erregulatzen ikasten dute eta pixkanaka gizarateak ezarritako arauak ulertzen doaz. Honekin batera, horien aurreko iritziak ere eraikiko dituzte; hau da, ondo dagoenaren eta txarto dagoenaren arteko aldeak ikusiko dituzte, iritzi propioarekin aurrean dituzten arazoei ebazpen kritiko bat eginez. Gainera, prozesu honen bidez, bere burua besteen barruan kokatzen hasiko dira, orain arte bizi izan duten egozentrismotik ateratzen eta aldi berean jarrera enpatikoak ahalbidetzen.

Hortaz, irakasle gisa ezin dugu ahaztu prozesu honen bideratzaileak izango garela. Beraz, haurrei gizarate mekanismoen barruan kokatzen laguntzeko, baldintza onak eskaini behar dizkiegu bizi izaten duten prozesua errazteko. Hori dela eta, eskolaren eskutik, garrantzitsua izango da gatazka egoerak bideratzen jakitea, hots, behar denean irakaslearen presentzia egotea baina bideratzaile bezala eta ez epaile gorena gisa. Horretaz gain, egoera bortitz bat hautemanetz gero, adibidez, ikastalde batek ume bat behin eta berriro zirikatzen duela ikusten badugu, hasieratik moztu edota konpondu behar dugu. Hau guztia lortzeko eta, ahalik eta gehien bortitzak diren egoerak ekiditeko ikasgelan enpatia, elkarlana, errespetua, ... bezalako baloreak landu beharko lirateke. Horiek haurren ikaskuntza prozesurako, gainontzeko ikasgaiak bezala, ezinbestekoak baitira. Zoritzarrez, askotan ez dira behar beste lantzen, eta gainontzekoekin konparatuz gero, bigarren plano batean geratzen dira.

Laburbilduz, lan hau hezkuntza munduan zuzenean lan egiten dutenentzat baita honetaz interesa dutenentzat zuzenduta dago. Horrekin lortu nahi dena guzti horiek gatazken inguruan duten jarrera ezezkorra birplanteatzea da. Hots, begiak zabaltzea eta orain arte arazotzat hartu diren egoera batzuen aurrean ematen dugun erantzuna aztertzea eta jakinaren gainean lan egitea.

3. Lanaren mugak eta etorkizunari begira lantzeko aukerak.

Ikusitako guztia aintzat izanda argi dago ikerketa lan hau ibilbide luze bateko lehenengo pausua dela. Hots, gatazkek hezkuntza munduan ukatu ezinezko leku garrantzitsua dute eta beraz, hauen inguruan ikertu, pentsatu eta aztertu beharko lirateke. Hau lortzeko bide luzea ibili behar da, hau da, ezin da geratu kasu konkretu bateko emaitzetan edota pedagogo batzuek esandako hitzetan, baizik eta gaur egungo gizartea bete-betean analizatu beharko litzateke hauen beharrak pairatzeko.

Alde horretatik, esan beharra dut, lan honek mugak izan dituela, ikerketa lana egiteko denbora eskasa izan delako. Hots, era honetako lanak aurrera eramateko komenigarria da bi aldien artean tarte luzeagoa izatea era honetan datuen arteko konparaketa zehatzagoa egin ahal izateko. Horrez gain, analisisa unibertsitateko azkeneko praktiken garaian egin da. Horrek ikerketa uneak sakonki analizatzeko denbora mugatu egin du praktiken barruan egin beharreko lanean integratu behar izan delako. Azkenik, lan hau erronka pertsonala izan da, hots, nahiz eta gradu amaierako lanaren formatuaren barruan ikerketa lana egiteko aukera egon, hezkuntzako gradu osoan zehar ez dugu halakorik egin.

Alabaina, esan dudan bezala, formatu hau aukeratu izan nuen gatazken inguruko ikerketa bat egitea haur hezkuntzako graduan ikasitakoaren alderdi garrantzitsuena islatzeko aukera ezin hobea ematen zidalako. Gainera, etorkizunari begira, ikerketa lan honekin aurrera jarraitzea gustatuko litzaidake. Aipatu bezala, gizakiok bizitzan dugun helburua zoriontsu izatea da eta, beraz, zoriontasun hori lortzeko bidean izaten ditugun gatazkek ulertu eta kudeatzen ikasi behar dira Haur Hezkuntzaren oinarrizko formazioan.

Beraz, bide honetan beraz jarraitu nahiko nuke etorkizunean lan, aurkitu izan ditudan galderei erantzuna bilatuz, lortutako emaitzak beste batzuekin konparatuz eta bidean aurkitutako erronkei aurre eginez. Azken finean, *pausuz pausu egiten da bidea.*

4. Erreferentzia bibliografikoak.

- Caba De la, M. A. (1993) *Razonamiento y construcción de los valores en el aula*. In infancia y aprendizaje. Madrid, orr. 73-94.
- Truchis, de C. (2003) *El despertar al mundo de tu bebé. El niño como protagonista de su propio desarrollo*. Barcelona: Oniro.
- Kamii, C. (1982) *La autonomía como objetivo de la educación: implicaciones de la teoría de Piaget*. Universidad de Illioun: Chicago Circle.
- Kohlberg, L. (1978) El niño como filósofo moral. In Delval, J. (comp.) *Lecturas de psicología del niño, Tomo II*. Madrid: Alianza Editoriala, 303-314 orr.
- Luque, A. & Palacios, J. (1990) *Inteligencia sensoriomotora*. In Palacios, J. Marchesi, A. eta Coll, C. (comp.). *Desarrollo psicológico y educación I: Psicología Evolutiva*. Madrid: Alianza Editoriala, 4.kapitulua, 72-73 orr.
- Medrano, C. (2005a). Jean Piaget. In Lopez, I. & Uribe, A. *Pedagogo sortzaileak, teorien iturburu*. Hik Hasi, 7. Monografikoa. Donostia, orr. 95-99.
- Medrano, C. (2005b).Lawrence Kohlberg. In Lopez, I. & Uribe, A. *Pedagogo sortzaileak, teorien iturburu*. Hik Hasi, 7. Monografikoa. Donostia, orr. 100-104.
- Piaget, J. (1971) *El criterio moral en el niño*, Barcelona, Fontanella.
- Pons, E. & Roquet-Jalmar, D. (2005) *Haur hezkuntza, garapen kognitiboa eta motorra*. Lan ekimena: Altamar Editorial, orr. 16-20.
- Ruíz, Y. (2006) *Análisis y resolución de conflictos desde una dimensión psicosocial*. Universitat Jaume I: Jornades de Foment de la Investigación.

ERANSKINAK

ERANSKINA I,

DATA: 2014- 02- 10/ 2014-02-21

1.- ASTEROKO TAULAK (noiz eta non gertatzen diren gatazkak ikusteko):

1.1.- Asteazken zehar non eta zein egunetan eman dira gatazka gehien (sozialak+kognitiboak):

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	GUZTIRA
Sarreretan* ¹	1	2	0	1	1	5
Txokoetan* ²	18	13	22	11	13	77
Bestelako ikasgaietan* ³	9	20		13	18	60
Korruan* ⁴	19	12	15	13	16	75
Patioan	9	6	9	7	8	39
Pasabideetan	5	1	3	1	5	15
GUZTIRA	61	54	49	46	61	

GUZTIRA: 271

1.1.1.- Sarrerako ilaran*¹:

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	GUZTIRA
Goizeko sarrera	0	1	0	0	0	1
Arratsaldeko sarrera	1	1	0	1	1	4
GUZTIRA	1	2	0	1	1	

GUZTIRA: 5

1.1.2.- Txokoan barruan*²:

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	GUZTIRA
Plastika txokoa	4		5		3	12
Hizkuntza txokoa	11			11		22
Joko sinbolikorako txokoa	3		5		10	18
Matematika txokoa		13	12			25
GUZTIRA	18	13	22	11	13	

GUZTIRA: 77

1.1.3.- Bestelako ikasgaietan*³:

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	GUZTIRA
Psikomotrizitatea		13				13
Bideo-gela					5	5
Euskal-jokoak		7				7
Liburutegia (15 egunero behin)				3		3
Ingelesa	9			10		19
Musika					13	13
GUZTIRA	9	20		13	18	

GUZTIRA: 60

1.1.4.- Korruan*⁴:

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	GUZTIRA
Goizeko korrua	3		7	8	9	27
Patio osteko korrua	8	6	4	5	6	29
Arratsaldeko korrua.	8	6	4		1	19
GUZTIRA	19	12	15	13	16	

GUZTIRA: 75

ERANSKINA II,

2.- EGUNEKO TAULAK (leku bakoitzean gertatzen diren gatazka motak zeintzuk diren ikusteko):

2.1.- Asteazken zehar sortutako gatazka hauek nolakoak izan dira?

Gatazka kognitiboak:

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	GUZTIRA
Sarreretan* ¹	0	0	0	0	0	0
Txokoetan* ²	8	9	10	7	2	36
Bestelako ikasgaietan* ³	5	6		7	9	27
Korruan* ⁴	7	3	6	5	5	26
Patioan	2	0	2	1	0	5
Pasabideetan	0	0	0	0	0	0
GUZTIRA	22	18	18	20	16	

GUZTIRA: 94

Gatazka sozialak:

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	GUZTIRA
Sarreretan* ¹	1	2	0	1	1	5
Txokoetan* ²	10	4	12	4	11	41
Bestelako ikasgaietan* ³	4	14		6	9	33
Korruan* ⁴	12	9	9	8	11	49
Patioan	7	6	7	6	8	34
Pasabideetan	5	1	3	1	5	15
GUZTIRA	39	36	31	26	45	

GUZTIRA: 177

2.1.1.-Sarreretan*¹:

	Gatazka kognitiboak	Gatazka sozialak	GUZTIRA
Goizeko sarreretan	0	1	1
Arratsaldeko sarrera	0	4	4
GUZTIRA	0	5	

GUZTIRA: 5

2.1.2.-Txokoetan*²:

	Gatazka kognitiboak	Gatazka sozialak	GUZTIRA
Plastika txokoa	6	6	12
Hizkuntza txokoa	12	10	22
Joko sinbolikorako txokoa	1	17	12
Matematika txokoa	17	8	25
GUZTIRA	36	41	

GUZTIRA: 77

2.1.3.-Bestelako ikasgaietan*³:

	Gatazka kognitiboak	Gatazka sozialak	GUZTIRA
Psikomotrizitatea	2	11	13
Bideo-gela	0	5	5
Euskal-jokoak	4	3	7
Liburutegia	1	2	3
Musika	9	4	13
Ingelesa	11	8	19
GUZTIRA	27	33	

GUZTIRA: 60

2.1.4.-Korruan*⁴:

	Gatazka kognitiboak	Gatazka sozialak	GUZTIRA
Goizeko korrua	10	18	28
Patio osteko korrua	13	15	28
Arratsaldeko korrua	3	16	19
GUZTIRA	26	49	

GUZTIRA: 75

2.1.5.-Patioa:

	Gatazka kognitiboak	Gatazka sozialak
Patioan	5	34

GUZTIRA: 39

2.1.6.-Pasabideetan:

	Gatazka kognitiboak	Gatazka sozialak
Pasabideetan	0	15

GUZTIRA: 15

ERANSKINA III,

3. GATAZKA SOZIALEN ANALISIA. (Gertatzen diren gatazka sozialen analisia egiteko):

3.1.- Noren artean eman dira *gatazka sozial* hauek?

	Ikasle bat	Ikasle bi edo gehiago	Irakaslea
Ikasle bat	54	39	27
Ikasle bi edo gehiago		24	33
Irakaslea			0

Guztira:177

3.1.1- Sarrererenetan: (5 G.S.)

	Ikasle bat	Ikasle bi edo gehiago	Irakaslea
Ikasle bat	3	1	1
Ikasle bi edo gehiago		0	0
Irakaslea			0

3.1.2.- Txokoetan: (41 G.S.)

	Ikasle bat	Ikasle bi edo gehiago	Irakaslea
Ikasle bat	20	12	5
Ikasle bi edo gehiago		2	2
Irakaslea			0

3.1.3.- Bestelako ikasgaietan: (33 G.S.)

	Ikasle bat	Ikasle bi edo gehiago	Irakaslea
Ikasle bat	7	4	5
Ikasle bi edo gehiago		10	7
Irakaslea			0

3.1.4. - Korruan: (49 G.S.)

	Ikasle bat	Ikasle bi edo gehiago	Irakaslea
Ikasle bat	10	8	12
Ikasle bi edo gehiago		2	17
Irakaslea			0

3.1.5. - Patioan: (34 G.S.)

	Ikasle bat	Ikasle bi edo gehiago	Irakaslea
Ikasle bat	9	13	1
Ikasle bi edo gehiago		10	1
Irakaslea			0

3.1.6.- Pasabideetan: (15 G.S.)

	Ikasle bat	Ikasle bi edo gehiago	Irakaslea
Ikasle bat	5	1	3
Ikasle bi edo gehiago		0	6
Irakaslea			0

3.2. Nolakoak izan dira *gatazka sozial* hauek?

		Ikasle bat / Ikasle bat	Ikasle bat / Ikasle bi edo gehiago	Ikasle bat / Irakaslea	Ikasle bi edo gehiago / Ikasle bi edo gehiago	Ikasle bi edo gehiago / Irakaslea	Irakaslea / Irakaslea	GUZTIRA
Gatazka mota	Gatazka fisikoa	23	9	0	7	0	0	39
	Gatazka berbala	31	30	27	17	33	0	138
Gatazkaren eragileak	Objektuak	19	16	2	8	0	0	45
	Espazioak	25	10	1	15	0	0	51
	Jarrerak/portaerak	10	13	24	1	33	0	81
Parte-hartzaileak	Neskak	27	13	13	5	7	0	65
	Mutilak	14	11	13	10	13	0	61
	Neskak eta mutilak	13	15	1	9	13	0	51
Gatazkaren ebazpenaren parte-hartzaileak	Irakasleak bere kabuz interbenitu	14	6	27	4	28	0	79
	Umeak irakaslearengana hurbildu	19	16	0	15	5	0	55
	Umeek bere kabuz konpondu	21	17	0	5	0	0	43
Ikasleen harremana taldearen arabera	Klase berekoak	50	30	25	17	30	0	152
	Klase ezberdinetakoak	4	9	2	7	3	0	25
Gatazkan erabili den hizkuntza	Euskaraz	16	3	25	4	25	0	73
	Gazteleraz	24	23	2	7	1	0	57
	Euskaraz zein gazteleraz	14	13	0	13	7	0	47
Gatazka momentuan konpondu da	Bai	49	34	23	20	22	0	148
	Ez	5	5	4	4	11	0	29
Gatazkaren amaiera	Ume bat edo gehiago negarrez	7	7	2	4	3	0	23
	Zigor batekin	8	6	6	6	11	0	37

ERANSKINA IV,
DATA: 2014-04-07 / 2014-04-18

1.- ASTEROKO TAULAK (noiz eta non gertatzen diren gatazkak ikusteko):

1.1.- Asteazkenaren eta ostegunaren egunetan eman dira gatazka gehien (sozialak+kognitiboak):

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	GUZTIRA
Sarreretan* ¹	3 (+2)	2	1 (+1)	0 (-1)	2(+1)	(+3)8
Txokoetan* ²	18	14 (+1)	21 (-1)	11	15 (+2)	(+2)79
Bestelako ikasgaietan* ³	10 (+1)	19 (-1)		12 (-1)	20 (+2)	(+1)61
Korruan* ⁴	21 (+2)	13 (+1)	14 (-1)	13	18 (+2)	(+4)79
Patioan	10(+1)	8(+2)	9	7	11 (+3)	(+6)45
Pasabideetan	5	1	4 (+1)	1	5	(+1)16
GUZTIRA	67(+6)	57(+3)	49	44(-2)	71(+10)	

GUZTIRA: 288 (+17)

1.1.1.- Sarrerako ilaran*¹:

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	GUZTIRA
Goizeko sarrera	1(+1)	1	0	0	0	2(+1)
Arratsaldeko sarrera	2(+1)	1	1(+1)	0(-1)	2(+1)	6(+2)
GUZTIRA	3(+2)	2	1(+1)	0(-1)	2(+1)	

GUZTIRA: 8 (+3)

1.1.2.- Txokoen barruan*²:

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	GUZTIRA
Plastika txokoa	3(-1)		4(-1)		6 (+3)	13(+1)
Hizkuntza txokoa	12(+1)			11		23(+1)
Joko sinbolikorako txokoa	3		5		9(-1)	17(-1)
Matematika txokoa		14 (+1)	12			26(+1)
GUZTIRA	18	14(+1)	21(-1)	11	15(+2)	

GUZTIRA: 79 (+2)

1.1.3.- Bestelako ikasgaietan*³:

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	GUZTIRA
Psikomotrizitatea		13				13
Bideo-gela					6 (+1)	6(+1)
Euskal-jokoak		6(-1)				6(-1)
Liburutegia (15 egunero behin)				4(+1)		4(+1)
Ingelesa	10(+1)			8(-2)		18(-1)
Musika					14 (+1)	14(+1)
GUZTIRA	10(+1)	19(-1)	0	12(-1)	20(+2)	

GUZTIRA: 61 (+1)

1.1.4.- Korruan*⁴:

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	GUZTIRA
Goizeko korrua	4 (+1)		6 (-1)	6 (-2)	8 (-1)	24(-3)
Patio osteko korrua	9 (+1)	8 (+2)	5 (+1)	7 (+2)	6	35 (+6)
Arratsaldeko korrua.	8	4 (-1)	3(-1)		4(+3)	20 (+1)
GUZTIRA	21 (+2)	13 (+1)	14 (-1)	13	18 (+2)	

GUZTIRA: 79 (+4)

ERANSKINA V,

2.- EGUNEKO TAULAK (leku bakoitzean gertatzen diren gatazka motak zeintzuk diren ikusteko):

2.1.- Asteazken zehar sortutako gatazka hauek nolakoak izan dira?

Gatazka kognitiboak:

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	GUZTIRA
Sarreretan* ¹	0	1	0	0	0	1(+1)
Txokoetan* ²	7	8	11	6	3	35(-1)
Bestelako ikasgaietan* ³	5	5		5	9	24(-3)
Korruan* ⁴	8	4	6	6	5	29(+3)
Patioan	2	2	2	0	1	7(+2)
Pasabideetan	0	0	0	0	2	2(+2)
GUZTIRA	22(=)	20(+2)	19(+1)	17(-3)	20(+4)	

GUZTIRA: 98 (+4)

Gatazka sozialak:

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	GUZTIRA
Sarreretan* ¹	3	1	1	0	2	7 (+2)
Txokoetan* ²	11	6	10	5	12	44(+3)
Bestelako ikasgaietan* ³	5	14		7	11	37(+4)
Korruan* ⁴	13	9	8	7	13	50 (+1)
Patioan	8	6	7	7	10	38(+4)
Pasabideetan	2	2	4	2	4	14(-1)
GUZTIRA	42(-3)	38(+2)	30(-1)	28(+2)	52(+7)	

GUZTIRA: 190 (+13)

2.1.1.-Sarreretan*¹:

	Gatazka kognitiboak	Gatazka sozialak	GUZTIRA
Goizeko sarreran	0	3	3
Arratsaldeko sarrera	1	4	5
GUZTIRA	1	7	

GUZTIRA: 8(+3)

2.1.2.-Txokoetan*²:

	Gatazka kognitiboak	Gatazka sozialak	GUZTIRA
Plastika txokoa	6	7(+1)	13(+1)
Hizkuntza txokoa	12	11(+1)	23(+1)
Joko sinbolikorako txokoa	0(-1)	17	17(-1)
Matematika txokoa	17	9(+1)	26(+1)
GUZTIRA	35(-1)	44(+3)	

GUZTIRA: 79(+2)

2.1.3.-Bestelako ikasgaietan*³:

	Gatazka kognitiboak	Gatazka sozialak	GUZTIRA
Psikomotrizitatea	2	11	13
Bideo-gela	0	6(+1)	6(+1)
Euskal-jokoak	2(-2)	4(+1)	6(-1)
Liburutegia	1	3(+1)	4(+1)
Musika	10(-1)	8	18(-1)
Ingelesa	9	5(+1)	14(+1)
GUZTIRA	24(-3)	37(+4)	

GUZTIRA: 61(+1)

2.1.4.-Korruan*⁴:

	Gatazka kognitiboak	Gatazka sozialak	GUZTIRA
Goizeko korrua	7(-3)	17(-1)	24(-4)
Patio osteko korrua	18(+5)	17(+2)	35(+7)
Arratsaldeko korrua	4(+1)	16	20(+1)
GUZTIRA	29(+3)	50(+1)	

GUZTIRA: 79(+4)

2.1.5.-Patioa:

	Gatazka kognitiboak	Gatazka sozialak
Patioan	7(+2)	38(+4)

GUZTIRA: 45(+6)

2.1.6.-Pasabideetan:

	Gatazka kognitiboak	Gatazka sozialak
Pasabideetan	0	16(+1)

GUZTIRA: 16 (+1)

ERANSKINA VI,

3. GATAZKA SOZIALEN ANALISIA. (Gertatzen diren gatazka sozialen analisia egiteko):

3.1.- Noren artean eman dira *gatazka sozial* hauek?

	Ikasle bat	Ikasle bi edo gehiago	Irakaslea
Ikasle bat	59(+5)	41(+2)	31(+4)
Ikasle bi edo gehiago		29(+5)	30(-3)
Irakaslea			0

Guztira:190(+13)

3.1.1- Sarrererenetan: (7 G.S.)+2

	Ikasle bat	Ikasle bi edo gehiago	Irakaslea
Ikasle bat	4(+1)	2(+1)	1
Ikasle bi edo gehiago		0	0
Irakaslea			0

3.1.2.- Txokoetan: (44 G.S.)+3

	Ikasle bat	Ikasle bi edo gehiago	Irakaslea
Ikasle bat	20	13(+1)	5
Ikasle bi edo gehiago		4(+2)	2
Irakaslea			0

3.1.3.- Bestelako ikasgaietan: (37 G.S.)+4

	Ikasle bat	Ikasle bi edo gehiago	Irakaslea
Ikasle bat	9(+2)	5(+1)	6(+1)
Ikasle bi edo gehiago		10	7
Irakaslea			0

3.1.4. - Korruan: (50 G.S.)+1

	Ikasle bat	Ikasle bi edo gehiago	Irakaslea
Ikasle bat	9(-1)	9(+1)	13(+1)
Ikasle bi edo gehiago		3(+1)	16(-1)
Irakaslea			0

3.1.5. - Patioan: (38 G.S.)+4

	Ikasle bat	Ikasle bi edo gehiago	Irakaslea
Ikasle bat	13(+4)	11(-2)	1
Ikasle bi edo gehiago		12(+2)	1
Irakaslea			0

3.1.6.- Pasabideetan: (14 G.S.) -1

	Ikasle bat	Ikasle bi edo gehiago	Irakaslea
Ikasle bat	4(-1)	1	5(+2)
Ikasle bi edo gehiago		0	4(-2)
Irakaslea			0

3.2. Nolakoak izan dira *gatazka sozial* hauek? Guztira 190

		Ikasle bat / Ikasle bat(+5)	Ikasle bat / Ikasle bi edo gehiago(+2)	Ikasle bat / Irakaslea(+4)	Ikasle bi edo gehiago / Ikasle bi edo gehiago(+5)	Ikasle bi edo gehiago / Irakaslea(-3)	Irakaslea / Irakaslea	GUZTIRA
Gatazka mota	Gatazka fisikoa	25(+2)	8(-1)	0	9(+2)	0	0	42(+3)
	Gatazka berbala	34(+3)	33(+3)	31(+4)	20(+3)	30(-3)	0	148(+10)
Gatazkaren eragileak	Objektuak	22(+3)	17(+1)	3(+1)	7(-1)	0	0	49(+4)
	Espazioak	24(-1)	10	0(-1)	19(+4)	0	0	53(+2)
	Jarrerak/portaerak	13(+3)	14(+1)	28(+4)	3(+2)	30(-3)	0	88(+7)
Parte-hartzaileak	Neskak	31(+4)	11(-2)	15(+2)	7(+2)	10(+3)	0	74(+9)
	Mutilak	18(+4)	12(+1)	16(+3)	8(-2)	12(-1)	0	66(+5)
	Neskak eta mutilak	10(-3)	18(+3)	0(-1)	14(+5)	8(-5)	0	50(-1)
Gatazkaren ebazpenaren parte-hartzaileak	Irakasleak bere kabuz interbenitu	12(-2)	5(-1)	31(+4)	5(+1)	30(+2)	0	83(+4)
	Umeak irakaslearengana hurbildu	27(+8)	17(+1)	0	14(-1)	0(-5)	0	58(+3)
	Umeek bere kabuz konpondu	20(-1)	19(+2)	0	10(+5)	0	0	49(+6)
Ikasleen harremana taldearen arabera	Klase berekoak	52(+2)	33(+3)	28(+3)	19(+2)	26(-4)	0	158(+6)
	Klase ezberdinetakoak	7(+3)	8(-1)	3(+1)	10(+3)	4(+1)	0	32(+7)
Gatazkan erabili den hizkuntza	Euskaraz	8 (-8)	4(+1)	25	4	24(-1)	0	65 (-8)
	Gazteleraz	32(+8)	25(+2)	0(-2)	13(+6)	0(-1)	0	70 (+13)
	Euskaraz zein gazteleraz	19(+5)	12(-1)	6(+6)	12(-1)	6(-1)	0	55(+8)
Gatazka momentuan konpondu da	Bai	51(+2)	33(-1)	26(+3)	19(-1)	21(-1)	0	150(+2)
	Ez	8(+3)	8(+3)	5(+1)	10(+6)	9(-2)	0	40(+11)
Gatazkaren amaiera	Ume bat edo gehiago negarrez	10	12	4	6	5	0	37(+14)
	Zigor batekin	11	14	8	13	9	0	55(+18)